

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

14. ALDIZKARIA - 2024ko urtarrilaren 18a (Tarifaren aldaketa)

24. ORDENANTZA: ORDENANTZA FISKALA, BARAÑAINGO UDALEKO BERDINTASUNAREN ALORRAK ANTOLATZEN DITUEN PRESTAKUNTZA IKASTAROETAKO SARRERA, IZEN EMATE EDO MATRIKULA ARAUTZEN DUENA

Oinarria.

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. idatz-zatiko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

Kontzeptua.

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, Udaleko Berdintasunaren Alorrek urtean antolatzen dituen prestakuntza ikastaroetan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo gisako bertze edozein kontzeptua dela eta, prezio publikoak aplikatzeko bertze ordenantzetan sartuta ez daudenean.

Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua.

Baldin, prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

Tarifak.

6. artikulua.

6.1. Arau honetan azaltzen diren tarifak aplikatuko dira, edo kasu bakoitzean ezartzen direnak, betiere garatu behar den jarduerari egokituak, eta, hala bada, Balio Erantsiaren gaineko zergaren kuota ere eramanen du.

2024KO TARIFEN ERANSKINA

2024ko TARIFAK (eurotan)

	Erroldatuak	Erroldatu gabeak
1.-Ikastaroak.		
-20 orduko ikastaroak	45,00	68,00
-40 orduko ikastaroak	90,00	135,00

Ahalegina eginen da ikastaroek 20 eta 40 ordu bitarte iraun dezaten beti. Hala ez bada, orduen eta zenbatekoen batezbestekoa eginen da.

Erroldatu gabeko emakumeak ikastaro eta lantegietan plaza librerik gelditzen bada baizik ez dira onartuko. Haiendako, ikastaro bakoitzaren prezioa erroldatuena baino handiagoa izanen da, arestiko taularen arabera.

Ikastaroaren matrikula ez ordaintzeko aukera aztertuko da, eta/edo kuota sinbolikoa besterik ez ordaintzekoa, gizarte-bazterketako egoeran dauden Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileen kasuan, haientzako interes berezikotzat hartzen bada ikastaroa, betiere Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposaturik.

Ikastaroak hasitakoan ez da itzuliko ordaindutako zenbatekoa.

Izena emateko epea bukatuta, eskainitako ikastaroren batean plaza librerik gelditzen bada, matrikula berriak onartzen ahalko dira, baldin eta ikastaro guztia ordaintzen badute.

Antolatzaileek ikastaro edo lantegiren bat bertan behera utziz gero, kuotaren zenbatekoa itzuliko zaie izena emandako erabiltzaileei.

2.-Bestelako jarduerak

Sentsibilizaziorako eta/edo prebentziorako jarduera soziokulturalak (antzerkia, kontzertuak...) herritar guztientzat

Kuota sinbolikoa 3,00-6,00